

Ion Arretxe Gutiérrez

INTXAURRONDO

Intxaurraren hostopeko itzala



n a r r a t i b a •

erain

INTXAURRONDO

Narratiba, 131

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespeneko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

1. argitalpena: 2021eko apirilean

Azala:

Iturri

Maketazioa:

Itxaropena

© Ion Arretxe Gutiérrez

© Itzulpena: Josu Zabaleta

© EREIN. Donostia 2021

ISBN: 978-84-9109-697-9

L. G.: D 411-2021

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

e-mail: erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008

itxaropena@itxaropena.net

Ion Arretxe Gutiérrez

INTXAURRONDO
Intxaurraren hostopeko itzala

Itzultzailea
Josu Zabaleta



Mikel Zabaltzaren oroitzapenez

*Eta Maribel Belastegi,
«Orain» taldearen zuzendariari,
antzerkia estimatzen eta
eszenatoki atzean zuzen jokatzeko irakatsi zidalako.*

Askori normalak irudituko zaizkie gertakariok eta beste batzuei, aldiz, sinesgaitzak erabat. Baina kronista batek ez ditu kontuan hartu behar, azken finean, kontraesan horiek. «Hau gertatu zen» esatea du eginkizun bakarra, badakienean hori gertatu zela, eta herri oso baten bizitzari zegokiola eta milaka lekuko daudela, horrenbestez, eta bihotzaren barren-barrenean jakin-go dutela esaten duenaren egia estimatzen.

Albert CAMUS, *Izurria*

Paradoxen bidea egiaren bidea da.
Errealitatea probatzeko orekarien harian
behar da ikusi.
Egiek akrobaziak egiten dituztenean,
orduan juzga ditzakegu.

Oscar WILDE, *Dorian Gray-ren erretratua*

Ez bekio inori egotzi nire bizitzaren errua.

Marguerite YOURCENAR, *Suak*

Aitona Gonzalok esaten zuenez, intxaurrondoaren itzala arima hozten zuelako omen zen hain txarra, eta intxaurrondoaren itzalean lo egiten zuena azkenean penaz hilko zela ere esaten zuen.

1985eko azaroaren 26ko goizaldean, 21 urte ozta-ozta nituela, Intxaurrondoko kuarteleko, Gipuzkoako Guardia Zibilaren 513. komandantziaren egoitzako guardia zibilek atxilotu ninduten.

Aurreko eguneko goizean, Itsas Armadaren komandantziako bi soldadu hil zituen ETAk, Pasaiako portutik hurbil, haiek zihoazen furgoneta metrailatuz.

Eta gauean guardia zibil bat, inguru hartan bertan.

Gurasoen etxean bizi nintzen, Errenteriako Parke kalean.

Gurasoekin eta bost anai-arrebekin bizi nintzen; anai-arreba guztiak, ni baino gazteagoak.

Hilabete batzuk baizik ez ziren nire anaia zaharrena bere kontura bizitzera joana zela.

Goizeko hiru eta erdietan atera ninduten ohetik. Lotan nengoen eta ohetik atera ninduten.

Hilabete lehenago, hortxe, ekin nion berriro Arte Ederretako karrerari, urte pare batez baztertuta eduki ondoren, marrazki bizidunezko film bat, *Kalabaza Tripontzia*, euskarazko lehenengo animazio-film luzea, egiteko lanetan parte hartzeko.

Egunero joaten nintzen Leioako campusera, Bilbo ondoko Leioako herrira, Euskal Herriko Unibertsitateak beste probintzia batzuetako ikasleentzat antolatuta zeuzkan autobus berezietako batean.

Goizeko zortzietan ateratzen nintzen Erreteriatik, Iztieta autobusbategitik, errepide nagusiaren ondotik, eta bazkalordurako etxean izaten nintzen berriro.

Ni atxilotu aurreko egunetan halako sentazio bitxi batzuk ere izan nituen.

Zenbait unetan, ohiko gauzek eta leku ezagunek ez ziruditen beti izan ohi ziren bezalakoak.

Betikoak ziren, bai, baina desberdintxoak.

Astia ematen zidan goizetan, kafe bat hartzea gustatzen zitzaidan Iztieta auzoko Donostia kaleko taberna batean, Unibertsitaterako autobusaren geltokitik ez oso urruti.

Ordu horretan oso beteta egoten zen, inguruko lantegietan eta industrien birmoldaketaren erasoen ondoren artean zutik jarraitzen zuten fabrika bakanetan sartu baino lehen beren kafeak eta kafe pattardunak husten ari ziren gizonen lepo.

Gau hartan, etxera bidean, Parke kalearen hasieran dagoen kioskoaren plazatxoan, barruan bi gizon zeuden auto bati

erreparatu nion; baterian zegoen aparkatuta, gainerako autotak bezala, baina haien alderantziz: muturra errepidera begira, etxetara begira eduki ordez.

Hots handi batek eta oihu pila batek, oihu eta oihu askok, esnatu ninduten.

Begiak zabaldu nituenerako, guardia zibilez beteta zegoen anaia txikiarekin batera partekatzen nuen gela, soldaduak bezala hornituta denak, militar areago zibil baino, kaskoz, pasamontañaz, balen aurkakoaz eta asaltoko fusilez hornituak.

Hasieran ametsa zela iruditu zitzaidan, eta esnatu gabe nengoela oraindik.

Haien artean bazen, kalekoz jantzita, gizon bat. Moztaka, beltzarana, biboteduna.

Intxaurraren hostopean ez etzan.

Hala esan ohi zuen aitona Gonzalok. Eta orobat esaten zuen gerra ostean jende gehiago hil zuela Gaintxurizketako intxaurrondoan itzalak goseak berak baino.

Amesgaiztoa edo gerrako filmen bat zela iruditzen zitzaidan hasieran, eta harri eta zur eginda geratu nintzen.

—¿Es usted Ion Arretxe? —galdetu zuen moztaka bibotedunak.

—Sí, soy yo.

—Tiene que acompañarnos.

Ez zen atxilotzen ninduten lehenengo aldia. Bi urte lehenago ere atxilotu ninduen Polizia Nazionalak Gasteizko Hiri

Zaharreko kale batean, beste zazpi gizajorekin batera, manifestazio baten ondoren izan ziren borrokaldietan.

Zerikusi gutxi oraingo honekin.

Gauza bat baita iskanbila batean harrapatzea, polizia bezain bizkorra ez zarelako lasterka, eta oso bestelakoa zeure bila zehazki etorri eta ohetik ateratzea, mugitu ere ezin duzunean.

Oihuak entzuten ziren etxeko egongelatik, korridorearen beste aldetik.

—¡Llebadme a mí! —esaten zuen aitak—. ¡Llebadme a mí!

Donostia kaleko tabernan film pornoak jartzen zituzten goizeko lehenengo ordutik hasita.

Kafe bat hartzen ari nintzen, unibertsitatera eramango ninduen autobusa hartu arte denbora luzatzen, eta telebistan pantaila osoa hartzen zuen zakil bat sartu eta irten ari zen, aurretik, atzetik, harrapatzen zituen zulo guztietatik, daratulu baten moduan bidea zabalduz.

—Eraman ni! —esaten zuen aitak—. Eraman nazazue ni!

—Entzun. Hire zahar hori txerriaren moduan ari duk kurrinka —esan zidan, lehen «usted» eta orain «tú», beltzaran bibotedunak, kalekoz jantzita zegoen bakarrak.

Anaiarekin partekatzen nuen gela guardiaz beteta eta anaiarrebez hutsik zegoen.

Geldiro jantzi nintzen, oso geldiro.

Goizeko ordu horietan irrealitasun maila handia izaten du errealitateak.

Zalantza egin nuen ea bezperan erabilitako kiroleko oinetako berak jantzi... Zer diot, ordea, bezperan erabilitakoak! Aste osoan kendu ere egin gabe erabilitako zapatilak...

Irunen marrazki bizidunen lantegian gurekin lan egiten zuen Hernaniko lagun batek behin kontatutakoaz gogoratu nintzen. Bere lehengusu bat barrkada baten erdian atxilotu zuten batean, komisarian egin zizkioten irain eta eman zizkioten belarrondoko gehienak ez omen ziren izan poliziaren kontra jaurtiketako harrikadengatik edo kale erdi-erdian gurutzatu zituen autoengatik, ezta su eman zien zabor-ontziengatik ere.

Biluztera behartu eta galtzontzilloak zikinak zituelako erori omen zitzaizkion ostia guztiak.

Gasteizen atxilotu nindutenean, ez nuen horrelako arazorik izan. Edo polizia haiek ez ziren horren arduratsuak, edo nire lankidearen lehengusuaren galtzontzilloak baino garbiago zeuden nireak.

Arropaz aldatu nintzen.

—Jantzi arropa beroa, hotz handia egiten du-eta —esan zuen bibotedunak, hark agintzen baitzuen, itxura zenez.

Miatu ninduten eta diru-zorroa, boligrafo urdin bat, Topoko txartel batean bilduta neukan txikle bat, Lucky paketea eta txiskeroa kendu zizkidaten.

—Eraman nazazue ni eta utzi hori hemen! —entzun nion aitari oihu egiten.

Ez nuen ezer esan. Ahoa lodi eta lehorrik neukan, bezperan zigarro asko erre nituelako... Edo lo-faltagatik, edo beldu-rragatik...

Arratsalde horretan bertan amak agindua zidan puntu egiteko orratz batzuk erosteko.

Bitan joan nintzen auzoko mertzeriara, Parke kalean Auzo-Elkartearen ondoan dagoenera.

Bigarrenez joan behar izan nuen, ia etxera iristear nintzela erosi nituen orratzak lodiera berekoak ez zirela ohartu nintzelako.

—Nola nahi duzu esnea, beroa ala hotza?

—Laga, laga...

Kafea hartzen ari nintzen tabernan, autobusera baino lehen denbora luzatzen, eta telebistan eman eta eman ari ziren, aurretik, atzetik, mia-zulo guztietatik.

—Leihoetara ez ateratzeko, ¡cojones!

—Nire gizonen tiro egiteko agindua dute!

Gurasoak eta nire bost anai-arrebak etxeko egongelaxoan inguratuta eta pilatuta zeuzkaten.

Zotinak, izumenezko, ezintasunezko, amorruzko hitz etenak, besterik ez...

—Ez ukitzeko, zerri hori! —bota zion oihuka nire arrebak guardia ilehori, oso garai bati.

—Denak akabatuko zaituztegu, basko putakumeak!

Garrasiak, bultzadak, altzariak arrastaka, gauzak erortzen... dena horrela.

Bezpera gauean guardia zibil bat hil zuten Pasaiako portuan, eta oso aztoratuta zeudela antzematen zitzaien.

Mertzeriatik atera nintzen lehenengo aldian gizon batekin topo egin nuen.

Eta bigarrenean ere bai.

Sentsazio bitxia izan zen.

Begi-bazterraz begiratu genion elkarri. Gure begiradak igurtzi egin ziren elkarrekin.

—Nora daramazue, e? Nora daramazue? —galdetu zien amak.

—Zure seme kabroi hori Intxaurrendoko kuartelera etorriko da gurekin, gauza batzuk egiaztatzeko.

Intxaurrendoko izugarrikeriei buruz irakurriak nituen mila istorio, entzunak nituen ehunka mila istorio, imajinatuak nituen milioika istorio pilatzen zitzaizkidan buruan.

Aita lurrean zegoen. Guardia batzuen artean eusten zioten.

Aita gizon garaia eta indartsua zen.

Baina aita bat lurrean ez da ezer, nahi bezain garaia eta indartsua izanda ere.

Txikienak sosegatzen ahalegindu nintzen eta musu eman nien; ezpainak hain nituen lehorrik non metal-hotsa atera baitzuten. Amari ere musu eman nion.

Aitari ez, ez nion musu eman. Luze zegoen lurrean botata.

Guardia batzuen artean eusten zioten. Haietako batek burua zapaltzen zion.

—Lasai, aita, lasai —uste dut ahalegindu nintzela esaten.

Goiz batzuetan erdi lotan egiten genuen unibertsitatera joateko bidaia.

Beste batzuetan, seko lotan.

Logaleak amorratzen egonda ere, autobusa Durango-ko ordaintokian gelditzen zenean, esnatu egiten nintzen ia beti.

Anboto, Alluitz eta Untzillaitz harri-masa erraldoiak hutsetik sortuak balira bezala agertzen zitzaizkidan aurrean, beren harrotasunak elkarrengandik bereizirik, beren bakar-dadean eta handitasunean elkarri erronka joz.

Guardietako bat hormako apalategiko liburuak miatzen ari zen.

Gainbegiratu labur bat egiten zien, ea orrien artean hitzak baino zerbait gehiago ote zegoen, eta lurrera botatzen zituen.

Las maravillas del saber... Mitología vasca... El ángel triste...

Teatro selecto de Alfonso Sastre... Wilt...

Gizon batzuk beiratearen aurrean gelditzen ziren, tabernaren paretik igarotzean, filma kaletik ikusteko.

Jabeari ez zion batere graziarik egiten halakoek bere programazioaz aprobetxatu eta gero diruak konpetentziaren tabernetan gastatzeak.

Horregatik, bada, oihu eta keinuak egiten zizkien tabernako barratik, handik urrundu zitezten, mamuak edo euliak uxatu nahi balitu bezala.

Bizkor atera ninduten etxetik, eskuburdinak jarri gabe, bi guardiaren artean: kalekoz jantzita zebilen biboteduna eta beste bat.

Ate lehertuaren azpitik igaro ginenean, erabateko tristura nagusitu zitzaidan.

Liburuek, bata bestearen ondotik ur-jauzi batean bezala parrastan lurrera erortzean egiten zuten zaratak nire anai-arreba txikien negarrak estaltzen zituen.

El diccionario de Coll... Guillermo hace de las suyas... Chacal... Obras Completas de Jardiel Poncela...

Eskailera guardiez beteta zegoen, laugarren solairutik atariraino.

Bizilagunen ateetako behatxuloetan esparatrapu-zerrendak zeuzkaten jarrita.

Estropezuka jaitsi genituen bi solairuak eta gaueko ilunetara atera ginen, azaroko gau hezera.

Bat-batean hotza nagusitu zitzaidan, eta adorea lurreraino jausten zitzaidala sentitu nuen, izotz-erauntsi bat bailitzan.

Elezaharrak dioenez, Anbotoko haitzulo batean, Durango-ko autopistako ordaintokiaren aurrez aurre bizi omen da Mari, gauean bizi diren gainerako jeinu guztien erregina eta nagusia.

Marik, batzuetan, erratz bat erabiltzen du herrestan. Beste batzuetan, kateak.

Batzuetan, hodei zuri batean joaten da hegan. Beste batzuetan, sutan bildurik.

Artzain batzuek, aspaldi-aspaldiko garaietatik, beldurra diote, eta Anbotoko Dama edo Anbotoko Sorgina deitzen diote.

Tan, tan... Tan, tan...
Nor da? Nor da?
Anbotoko Sorgina.
Itxi atea!

Hasieran JOS, ALF eta KUN ibiltzen ziren lagun-taldean; ni geroago hartu ninduten.

JOS eta KUN lezoarrak ziren, ALF pasaiatarra eta ni erreteriarra.

Asteburuetan elkartzen ginen.

Lezoarrak gehiengo zirenez, larunbat goizetan Lezon ibiltzen ginen. Oriotarra tabernaren inguruan, edo Ustarri, Allerru, Mikel inguruan... Eta gauean, nire herrian buelta bat ematera ateratzen ginen.

Txoko Txiki izaten genuen elkartzeko lekua, hura zen gure kuartel nagusia, eta handik abiatzen ginen gure erronda egitera: Arkaitza, Touring, Manuel, Madalena, Sindi, Landare, Txu... Goizeko ordu txikietan Bingenen bukatzen genuen, katatoniaren eta erabateko desfasearen tenpluan.

Abestian, Anbotoko Damak atea jotzen zuen.

Errealitatean, Guardia Zibilak bota egin zuen.

JOS eta BER nituen lagunik onenak.

BER ez zen nire kuadrillakoa. Donostiarra zen, Gros auzokoa.

Arte Ederretako fakultatean ezagutu genuen elkar, eta lehenengo egunetik bertatik egin ginen lagunak.

JOSekin batera aritu nintzen lanean *Kalabaza Tripontzian*.

Lankideak izan ginen lehendabizi, eta gero kuadrilla berekoak.

Oso gaztea bazen ere, JOSek ospe handia zuen Euskal Herrian komiki-margolari gisa. Harrigarritzko erraztasuna zuen marrazketarako, erraztasun magikoa ia. Bera ezagutu baino lehenagotik miresten nuen haren lana. Haren istorio batzuk ikusiak nituen *Ipurbeltz* aldizkarian, eta asko gustatu zitzaizkidan.

Aitona Gonzalok esaten zuen intxaur arbolaren itzalak ari-ma hozten zuela eta odolaren kolorea aldatzen zuela.

Aitona Gonzalok sendabelarrez eta landareez asko zekielako esaten zituen horrelako gauzak.

* * *

Bizkor egin genituen –airean ninderamaten– beren Nissan Patroletaraino zeuden ehun metroak.

Hezetasunak eta behe-lainoak autoen farolen argi laranja-koloreko elektrikoaz tindatu zuten gaua.

Itzaletatik eta sastraken atzetik guardiak eta guardiak ateratzen ziren...

Goizeko ordu txikietan Bingen itxi eta Asiloko bidegurutzerantz abiatzen ginen, han agurtu eta nork bere etxerako bidea hartzeko –lezoarrak Lezorantz, donibandarrak Donibanerantz eta ni Galtzarabordako auzorantz; horrelakoetan KUNek beti esaten zuen:

—Gaizki behar dugu gaur gauean bizpahirutan txortan ez egiteko.

Eta halaxe, hurrengo asteburua arte.

Erretzeko gogo sartu zitzaidan.

Eta negar egitekoa ere bai.

Biei eutsi nien.

Aurreko astean Donostiako Orain antzerki-taldearentzat panel bat margotu genuen, eta beste bat margotzekoak ginen.

Txanpon batzuk irabazi behar genituen, BER adiskideak eta biok.

Jazz-musikari batzuk musika jotzen agertzen ziren margolanean. Maribel, antzerki-taldearen zuzendariaren aginduz muntatzen ari ginen antzerki-lan baterako eszenografiaren zati bat zen, kabaret-eszena baten antzera.

Gure kaleak ez zuen irteerarik, norabide bakarrekoa zen. Han sartzen zen autoak atzeraka atera behar zuen, edo hantxe geratu betiko.

Horregatik, hain zuzen, ni atxilotzera etorri zirenean, kioskoko plazatxoan aparkatu zituzten beren autoak. Dozena erdi Nissan Patrol izango ziren gutxienez, kapota eta ateak sardinzarren kolorekoak, eta beste hiruzpalau auto kamuflatuak.

Behin bat, hurrengoan beste bat, beti izaten zen norbait tabernako atean guardia egiten.

«Otsoa!» egiten zuten oihu emakumeren bat azaltzen zenean.

Orduan tabernariak bideoaren kontrolean STOP botoia sakatu, eta telebistako programazioa agertzen zen berriro pantailan.

Kioskoko plazatxoaren egiazko izena Urbia Plaza da. Hartan bukatzen da bigarren aldapa, herriaren erdialdea eta Galtzarabordako auzoa lotzen dituen aldapa, eta han hasten da hirugarrena, hiru aldapetan luzeen eta pikoena.

Xarma gutxiko gela zabal-zabal batean egiten genuen lana, Orain taldearen entseguetarako tokiaren aurrez aurre, Fruta Azokaren ondoko eraikin batean, Donostiako Atotxako futbol-zelaiaren ondoan.

Margoen kimika-usaina platanoen, laranjen, ananen eta kiwien usain gozo, freskoekin nahasten zen.

Antzerkirako zaletasun handia zegoen gure inguruan. Gure taldeaz gainera, baziren Sebastopoleko Titiriteroak –kaleko antzerkia egiten zuten euskaraz–, Zingili Zangala, Trapu Zaharra, Atelier, Intxixu, Le Galeón, Bederen Bat, Ttanttaka...

Ni antzele hasi nintzen. JOSek esanda jakin nuen Orain taldekoak pertsona garai eta indartsu baten bila ari zirela, Michel de Ghelderode-ren *Escorial* obran borroarena egiteko. Probasaioak egiten zituzten lekuan azaldu eta hartu egin ninduten.

Sasoi pare bat egin nuen emanaldi bakoitzean Paco Sagarzazu handia neure eskuez hiltzen.

Baina hura ez zen niretzako lana.

Antzele-lana utzi eta eszenografian laguntzen hasi nintzen.

Litxarreriak eta zigarroak banaka erosten genituen kiosko batez gainera, Urbia plazan baziren gozoki-denda bat, harategi bat eta etxebizitza-bloke batzuk.

Pintada bat ere bazegoen etxebizitzetako baten fatxadan: «Akí se vende heroína».

Gauak ia dena harrapatzen zuen bere sarepean: farolen argi astuna... fabriketatik eta itsasotik iristen ziren usainak... bertan hiltzeko saihasbide baten bila ari zen merkantzia-tren baten kirrinka, burdina burdinaren kontra...

Goiz batean, Iztieta tabernaren jabeak, filma kaletik ordaindu gabe ikusi eta kafea hartzera beste tabernetara joaten zirenez asper-asper eginik, egunkari-orritz paperez tatu zituen leihoak eta ateko beirak.

Aulki gainera igo eta, orritz orri, banan-banan estali zituen tabernako beira guztiak, orriak zelo-paperez itsatsiz.

—Dibertitu nahi duenak ordaintzea asko du!
Eta barra osterera itzuli zen.

Atzean eseri ginen, auto kamuffatueta batean. Ni, erdian.
Atea itxi zen. Infernua sartua nintzen.

Kaputxa beltz bat jarri zidaten eta belaunen kontra estutu
zidaten burua.

—Norbaitek ikusi eta ikarak ez dezan hil —esan zuen
haietako batek.

Eta jarraitu zuen:

—Galtzetan kaka egingo duk, putakume galanta. Gal-
tzetan kaka...

Autoa abian jarri zen eta, haren atzetik, segizioa.

Berdin harrapatzen haute harrika ari haizela, edota autoak
kalean gurutzatzen, berdin harrapatzen haute zamarrako pa-
trika bakoitzean molotov koktel bana duala... Baina galtzon-
tzilloak kakaztuta harrapatzen bahaute, izorratu haiz, txo.

Hori esan zigun *Kalabaza Tripontzian* gurekin lan egi-
ten zuen hernaniar batek.

—Non dituk oraintxe hire komandoko laguntxoak?

—Bakarrik utzi haute, ezta?

—Ai, gizajoa... Hik ematen didak pena, hik, pailazo
kakatsu horrek!

Horrela hitz egiten zidan gidariaren ondoan zihoan guar-
diak.

Eta gainerakoek esaten zidaten:

—Galtzetan kaka egingo duk, putakume galant hori.
Kaka...

Galtzarabordarako lehenengo aldapa Aralar plazan hasten da, eta Vía Maquinillan bukatzen; horrela deitzen genion gure aiton-amonen garaian Aiako Harriaren azpiko Arditurriko meatzetatik ateratzen zen mineral apurra Pasaiaiko portura eramateko erabiltzen zen trenbideari.

—Gainean kaka egingo duk, etarra puta hori. Kaka galtzetan...
Hatz koskorrez lokietan jotzen zidaten.

—Kaka egingo duk, etarra puta hori. Orain ikusiko duk zer den ona...

Ukabilkada-zaparrada alde batetik eta besterik.

—Kaka egingo duk, etarra puta hori, eta heuk jango duk mokordoa gero.

Bigarren aldapa Vía Maquinillan hasi eta Urbia plazan, kioskoaren plazatxoan bukatzen da.

Eta hirugarren aldapa Urbia plazan hasi eta Aizkorri plazan bukatzen da, Koldo Mitxelena Institutuaren ondoan, nik ikasi eta orain nire anai-arrebetako batzuk ikasten ari ziren Errenteriako Institutuaren ondoan.

Erretzeko gogoa sartu zitzaidan.

Eta negar egitekoa ere bai.

Galtzetan pixa egin nuela uste dut.

Margotzeko kolore asko erabiltzea gustatzen zitzaigun.

BERek esaten zuen tutti frutti estilokoak zirela gure panelak, jazz-musikarien kolore-bizitasunagatik eta margotzen genuen tokia betetzen zuen fruta-entsaladaren usainagatik.

Aralar, Urbia eta Aizkorri, auzoko plazatxoek izenak izatez gainera, Euskal Herriko hiru mendi-sailen izenak dira.

Lehertu behar zitzaidan burua.

Alde guztietatik zetorkidan ostia-zaparrada.

Hatz koskorrez kolpe lehorrak, oso lehorrak, ongi ikasiak eta teknikoak emanez jotzen ninduten lokietan.

Aldian behin «Akí se vende heroína» pintada agertzen zen tabernaren baten atean, herriko bazterren batean, etxeren bateko fatxadan...

Kaputxa baten azpian zaudenean oso zaila izaten da ukabilkadak saihestea, ez baitakizu ez noiz, ez nondik etorri behar zaizun hurrengoa.

Ahal nuen guztia kuzkurtzen nintzen eta indar guztiaz ixten nituen begiak, ahalik eta leku gutxien hartzeko, ahalik eta txikiena, txiki-txikia... bihurtzeko, desagertzen ahaleginduz.

Bi bide zeuden kioskoko plazatxotik Intxaurrendoko kuartelera joateko: aldapan behera Aralar plaza aldera jaitsez, edo beste aldatatik Institutu aldera igoz.

Hain urduri nengoen non, autoa abiatu zenean, ez bainintzen ohartu aldapan gora ala behera gindoazen.